



Prensa oharra

Turkish Airlines Euroleague Final Four dela eta

**BASKONIAK ETA EROSKI-K ELKARTASUN
KANPAINA BAT BULTZATUKO DUTE ARABAKO
GAZTE SASKIBALOIAREN ALDE**

- **Elkartasuna erakusteko, eskumuturrekoak jarri dituzte EROSKI Araban dituen dendetan, Baskonia-Araba Experience Storeren denda ofizialean eta Buesa Arenako tabernetan; euro batean eros daitezke**
- **Hura salduta lortzen den diruarekin baloiak erosiko dituzte gazte saskibaloiko taldeentzat**
- **Kanpaina hori martxan egongo da Lauko Finalak dirauen artean**

Gasteiz, 2019ko otsailaren 11.- [EROSKI](#)k eta [Saski Baskonia SDA](#)-k indarrak batu dituzte Arabako gazte saskibaloia bultzatzeko; maiatzean, izan ere, Gasteizen izango da 2019ko Turkish Euroleague Final Four.

Hortaz, European eliteko saskibaloian dagoen ekitaldirik handiena Gasteizko Fernando Buesa Arena pabiloian izango denez, gaurtik aurrera eta era eskusiboan, elkartasun eskumuturreko bat izango dute EROSKIren hipermerkatu eta supermerkatuetan, Baskonia-Alaves Experience Storeren denda ofizialean eta Buesa Arenako tabernetan.

Kanpaina hori martxan egongo da Lauko Finala amaitzen den arte, eta eskumuturrekoak euro batean erosi ahalko dira; 10.000 unitate daude EROSKIren Arabako dendetan. Hura salduta lortzen den diruarekin baloiak erosiko dituzte gazte saskibaloiko taldeentzat. Kanpaina amaitzean, saskibaloiko baloiak erosiko dituzte bildutako diruarekin, eta, Arabako Saskibalo Federazioaren laguntzarekin banatuko dituzte, 2019-2020ko denboraldia hasten denerako eskura izan ditzaten.

"Elkartasun ekintza honen bitartez, asmoa da herritar guztiak partaide egitea eta harro egotea Europako eliteko saskibaloian dagoen lehiaketarik handiena hartuko duelako hiriak. Baina, gainera, era sinbolikoan elkartu nahi dira kirol honetan diharduten gazteak eta elitea, erakusteko nolako lan eskerga egiten den kirol kategoria horietan", azaldu du Mikel Barcenak, Baskonia-Alaves Taldearen negozio alorreko zuzendari nagusiaren laguntzaileak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



"EROSKI^k ohitura osasungarriak sustatzen ditu ekimen ugariaren bitartez. Zalantzarik gabe, kirola ere ohitura horietan sartzen da; hortaz, Arabako gazte saskibaloia bultzatzeko, elkartasun ekimen hau bultzatu dugu Baskoniarekin. Kirol honen etorkizuna dira, eta haien ilusio eta ahaleginekin seguru gaude horietako batzuek Europako Lauko Finalean jokatuko dutela hemendik urte batzuetara. Gure bezeroak animatu nahi ditugu elkartasun ekimen honetan parte hartzera Arabako neska-mutikoen alde", esan du EROSKIren Harreman Instituzionaletako zuzendariak, Josean Yelak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)